



e. prentsa@sare.eus

t. 678.137.405

w. www.sare.eus



URTARRILAREN 9KO MANIFESTAZIOEKIN BAT EGIN DU HAINBAT LEGELARIK

Zuzenbide alorreko lagunak elkartu gara hemen Bilbon eta Baionan urtarrilaren 9an Sarek eta Bagoazek deituta euskal presoek giza eskubideen alde burutuko diren manifestazioei atxikimendua emateko. Izan ere, gaur egun Gobernu eta Epaitegiek aldiro-aldiro urratzen dituzte oinarritzko eskubide horiek. Hau esateko gure argudioak aletu aurretik, adierazi nahi dugu ez gatozela bat erantzun bortitzekin, ez, noski, Bizkaibus-eko autobusen erreketak ekintzarekin berarekin; uste dugulako, gainera, ez dela lagungarri presoek giza eskubideen aldeko lanean.

Pentsaera zein izaera desberdina dugun arren, denok gara alor berekoak, Zuzenbidean sinisten dugun legelariak; Fidatzen gara Zuzenbideaz, besteak beste, zuzenbiderik eta giza eskubiderik gabe ez dagoelako demokraziarik. Begien bistako da hori, eta XVIII. mendeko eskubideen adierazpenetik datorren egiaztapena bada ere, XXI. mendean oraindik aldarrikatu beharrean gaude.

Herritar asko ez da arduratzen giza eskubideetat, berez dauzkatelako. Dena den, salbuespen egoeratan, esaterako kartzelan dauden kasuetan, zorrotzagoak izan behar dugu oinarritzko eskubide horiek zaintzerakoan, hain juxtu, egoera horietan gertatzen baitira aldarrikapen beharrak: Euskal presoek aplikatzen zaizkien neurriek, gure iritziz, oinarritzko eskubideak urratzen dituzte sistematikoki, eta legez kanpokoak dira.

Aipagarria da, Madril eta Parisen neurri horiek arintzen saiatzen ari direla Europako erakundeak eta baita, Estrasburgoko Giza Eskubideen epaitegia ere. Hala ere, espainiar eta frantziar agintari politiko eta judizialek epaitegi goren horren ebazpenak saihesten dituzte euskal presoek dagozkien kasuetan. Esaterako, zigorra etxetik gertu dagoen kartzelan betetzeko eskubidea, edota EBko bi Estatutan betetako zigorra aintzat hartzeko erabakia.

Espainiar epaitegiaren agintarien aurpegi bikoitza esanguratsua da. Batetik Europako epaitegiaren erabakiak beteko dituztela diote, -horixe esan zuten Epaitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseiluko lehendakariak- baina, bestetik, kontrakoa egiten dute epaitegiek.

Presoak etxetik ehunka kilometrotara urruntzea eta sakabanatzea, giza eskubideen aurkakoa da, Europako Giza Eskubideen Epaitegiaren zenbait ebazpenen arabera. Horixe erabaki zuen hurrenez hurren, Errusia eta Ukrainako Khodorkovskiy eta Lebedev kasuetan. Hain juxtu, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean, 1978ko Espainiako Konstituzioan eta maila baxuagoko beste araudi batzuetan jasotzen den intimitate eta famili bizitza edukitzeko eskubidea urratzen du dispersioak. Espainiar kartzela politikak ez du ez bertako legea betetzen, ezta Europakoa ere. Etxekoengandik hain urruti eramanda sarri presoek ez dute umeen edo adinean aurrera doazen senideen bisita jasotzerik.

Entzutegi Nazionalak aurreko astean emandako epaia ere aipagarria da. Ukatu egin die presoek etxetik gertu dagoen kartzela batera eramateko eskaera. Askok kezkatu gaitu horrek, batetik Europako giza eskubideen arloko jurisprudentziaz erakutsi duten ezjakintasunarengatik; bestetik, epaia ez delako egokitzen egungo egoera sozial eta politikoari, hau da, gure ustez, uneak Zuzenbidea ulertzeko beste era bat eskatzen du.

Honekin batera, publikoki salatu nahi dugu espainiar epaitegiek beste herrialde batzutan betetako kartzela zigorren kontaketa zehazten duen Europako Erabaki markoari buruz duten jarrera; Kezkatzeko modukoa da, erabaki hori beteko balute, preso batzuek jadanik etxean edo askatzear lirakeelako. Europako zuzentarau horri buruz onartutako legeak modu murritzalean aplikatzeko helburua duenez, derrigorrezkoa da Europako Zuzenbidearekin bat etortzea eta, hain juxtu EBko Justizia Epaitegiari dagokio egiaztatzea. Baina, hala ere, Entzutegi Nazionalaren osoko bilkuran ez galdetzea erabaki dute. 11 epailek eman zuten kontsulta ez egitearen aldeko bozka eta 9k aurkakoa. Beraz, 11tik 9 epaileen ustez legea izan daiteke Europako irizpideen

SARE

aurkakoa, baina Entzutegi Nazionalak nahiago du Justizia Epaitegiari batere ez galdetzea. Ez du argitu nahi Europako Zuzenbideak esan nahi duena eta espainiar legeak hori betetzen duen.

Beraz, jaso zuen zigorra erabat beteta duen pertsonak libre izateko duen eskubidea zapuzten ari da Audientzia Nazionala. Gainera, gizatasun aldetik neurri oso gogorra dela deritzogu, kontuan izanik preso horiek kartzelan 20 urte baino gehiago daramatzatela eta 40-60 urte artekoak direla.

Euskal presoek zein hauen senideek jasaten dituzte zigorrak eta kartzelako baldintzak gogortzearen ondorioak. Beraz, salbuespen neurriak indargabetzeko eskatzen dugu, legedia nahita presoek eskubideen aurka behartzeari eta makurtzeari uzteko alegia.

Izan ere, gure ustez, egungo legediari dagokion kartzela politika soilak bera aurrerapausoa litzateke, jendarteak sarri aldarrikatu eta hainbeste desiratzen duen bake eskenatokira iristeko bidean lagungarri.

Honengatik guztiarengatik egiten dugu bat Bilbon eta Baionan urtarrilaren 9an elkartzeko deialdiarekin; gure atxikimendua adierazi beste aukerarik ez dugu, ezin baitugu bazterrean utzi, gaur egungo gizartean ukaezina den funtsezko aldarrikapena, oinarrizko eskubideen garrantzia, alegia.



e. prentsa@sare.eus

t. 678.137.405

w. www.sare.eus



VARIOS JURISTAS SE ADHIEREN A LA CONVOCATORIA DEL 9N

En este acto con el manifiesto al que damos lectura queremos mostrar nuestra adhesión a la movilización que convocada para el día 9 de enero en Bilbao y Baiona, por Sare y Bagoaz, reclama el respeto de los derechos humanos de los presos y presas vascas, que en este momento entendemos son sistemáticamente conculcados por los poderes públicos, tanto por el Gobierno como por los propios Tribunales de Justicia. Antes de detallar los argumentos que nos dan pie a manifestar lo anterior, queremos expresar que no podemos compartir ningún tipo de acción violenta, como la quema de autobuses de Bizkaibus, por la propia acción en si, y porque no ayuda al objetivo de defensa de los DDHH de las personas presas.

La adhesión a la convocatoria de manifestación la hacemos personas de muy distinta condición e ideología, a las que nos une nuestra profesión: somos juristas, tenemos nuestra fe y confianza en el Derecho, porque, entre otras cosas, sin Derecho, especialmente sin derechos humanos, no hay democracia. Esta evidencia deudora de declaraciones de derechos realizadas ya en el siglo XVIII, es necesario reivindicarla hoy en día, en el siglo XXI.

Los derechos humanos no son objeto de preocupación para muchas personas, que los disfrutan sin percatarse de ello. Sin embargo, hay situaciones, las de excepción, es decir cuando las personas por ejemplo están en prisión, donde la exigencia de vigencia de los derechos fundamentales debe ser más rotunda. Y debe serlo, porque precisamente en esas situaciones se manifiesta la necesidad de reivindicar esos derechos.

En este sentido consideramos que las medidas que se aplican a los presos y presas vascos, vulneran sistemáticamente sus derechos fundamentales y no se ajustan a la legalidad vigente.

Habría que destacar, que las Instituciones europeas están poniendo, tímidamente, freno a algunas de las medidas que hoy continúan aplicando los Gobiernos de Madrid y París a las personas presas, así como algunas de las sentencias del Tribunal de DDHH de Estrasburgo, también.

Sin embargo, una y otra vez, las autoridades políticas y judiciales españolas y francesas, intentan esquivar las decisiones del citado Tribunal europeo, en todo aquello que se refiere a los presos y presas vascos.

Así, no se aplican las correspondientes al derecho al cumplimiento de condena cerca de sus lugares de residencia habitual, ni la relativa al computo del cumplimiento de penas en Estados diferentes de la UE.

Llama la atención esa doble faz que presentan las autoridades judiciales españolas, que afirman el respeto de las sentencias del tribunal europeo de derechos humanos en el estado español, así lo dijo el Presidente del Tribunal Supremo y del CGPJ, mientras que los tribunales hacen lo contrario.

Consideramos que la política de alejamiento y dispersión de las personas presas, a cientos de kms. de sus domicilios, es contraria al respeto a los DDHH, según se recoge en varias resoluciones del TEDH, -casos de Khodorkovskiy y Lebedev contra Rusia y Ucrania,- en concreto vulnera el derecho a la intimidad y a la vida familiar que está reconocido en el Convenio Europeo de DDHH y Libertades Públicas, en la Constitución española de 1.978 y en otras normas de inferior rango legal.

La política penitenciaria española no se ajusta a la legalidad interna y europea, tal como lo expresa el mantener a las personas privadas de libertad a una distancia tal de sus familiares que las visitas sean en muchos casos irrealizables, especialmente cuando se trata de personas mayores o de niños de corta edad.

SARE

Estas decisiones habría que añadir la reciente sentencia de la Audiencia Nacional, negando el derecho de los presos y presas vascas a estar internados en centros próximos a su domicilio habitual, que nos ha provocado una gran preocupación, tanto por el desconocimiento que supone de la jurisprudencia del TEDH como por la falta de adecuación de la misma a una situación social y política que requiere otras formas de entender el Derecho.

Junto a ello, es necesario trasladar a la opinión pública nuestra preocupación por la actitud adoptada por los tribunales españoles en relación con la Decisión marco Europea sobre el computo de penas cumplidas en otros Países, que permitiría a algunas personas encarceladas estar ya en libertad o a punto de alcanzarla.

La ley dictada en aplicación de esa Directiva marco persigue aplicarla restrictivamente, siendo necesario contrastar si esa aplicación restrictiva es conforme con el Derecho europeo, labor que corresponde al Tribunal de Justicia de la Unión Europea.

Pues bien, el Pleno de la Audiencia Nacional ha rechazado hacer esa consulta, haciéndolo además con el voto a favor de 11 magistrados contra 9. 9 magistrados y magistradas entienden que la ley puede ser contraria al Derecho europeo, pero, a pesar ello, la Audiencia Nacional no quiere dirigirse al Tribunal de Justicia para aclarar el significado del Derecho europeo y la consecuente conformidad con el mismo de la ley estatal.

La Audiencia Nacional juega con el derecho a la libertad de personas que ya han cumplido en su totalidad la pena a la que fueron condenadas. Pero, además, nos parece, desde un punto de vista humanitario, una medida especialmente dura cuando se trata de personas con una estancia en prisión, superior a los veinte años, y que tienen entre cuarenta y setenta años de edad.

El endurecimiento de las condenas y de sus condiciones de vida en las cárceles, afecta tanto a los presos y presas como a sus familiares. Es por ello, que reclamamos que los presos y presas vascos, dejen de ser tratados de forma excepcional, con una aplicación de la legalidad forzada e intencionadamente contraria a sus derechos.

Consideramos que la aplicación de una política penitenciaria, ajustada a la legalidad ordinaria, puede servir de aliciente para avanzar hacia un escenario de paz, tan ansiado por la sociedad vasca, como así lo ha manifestado en numerosas ocasiones.

Por todo esto nuestra adhesión a la convocatoria del 9 de enero en Bilbao y Baiona. Como juristas no podemos sentirnos ajenos a esa llamada que reivindica algo básico e irrenunciable en las sociedades actuales como es la vigencia de los derechos fundamentales.